

Andoainen euskara sustatzeko jardueretarako 2024ko dirulaguntza deialdia argitaratu da

- **Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroak egiteko dirulaguntzak eskatu ahal izango dira irailaren 11tik urriaren 14ra**
- **30 urtetik beherako andoaindarrek eskatu ahal izango dute dirulaguntza Udako Unibertsitateetan egiten diren ikastaroak egiteko.**
- **Merkataritza eta ostalaritza arloetan errotulaziorako nahiz webgune eta programa informatikoetarako dirulaguntzak eskatzeko epea irekita egongo da apirilaren 22tik ekainaren 16ra bitartean.**

Andoainen, 24-04-15.- Pasa den udan 2023-24 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntzak arautzen zituen deialdia argitaratu zen bezalaxe, oraingoan euskara sustatzeko jardueri diruz laguntzeko deialdia argitaratu berri da.

2024ko aurrekontuaren 12.500 euro aurreikusi dira dirulaguntza hauetarako, eta deialdian ezarritako diru kopuru osoa eskatzaileei dagokien dirulaguntza ordaintzeko nahikoa izango ez balitz, gehienezko ehunekoak jaitsi egingo lirateke baldintzak betetzen dituzten eskabide guztietara iritsi arte.

Honakoak dira dirulaguntzen atalak eta beren ezaugarri nabarmenak:

Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroak eta hezitzaileen berariazko prestakuntza egiteko:

Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluen kasuan, honako baldintzak bete beharko dira: Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluaren kasurako: 2023-24 ikasturtean ikastaroa egitea, Andoainen erroldatuta egotea ikastaroa bukatzen den unean, ikastaroa euskaraz egitea, Eusko Jaurlaritzak homologaturiko ikastaroa izatea eta ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharko da ikastegiaren ziurtagiria, eskatzaileak ikastaroa egin izana eta alderdi teorikoa gainditu izana ziurtatzen dituen, ordaindutako matrikularen zenbatekoa eta ikastaroaren homologazio eta hizkuntzari buruzko xehetasunak ziurtatzen dituen.

Hezitzaileen formazioaren kasurako, honakoak dira baldintzak: hizkuntza-aktibazioan eragiteko estrategiak lantzen dituen euskarazko prestakuntza-ikastaroa egitea 2023-24 ikasturtean eta herriko kultur, aisialdi edota kirol elkarteren batean lanean aritzea formazioa bukatzen den unean.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharko da herriko elkarteetako begirale edo entrenatzaile dela egiaztatzen duen ziurtagiria, alde batetik, eta bestetik, ikastegiaren ziurtagiria, eskatzaileak ikastaroa egin izana ziurtatzen duena, ordaindutako matrikularen zenbatekoa eta ikastaroaren xehetasunak ziurtatzen dituen.

Bi kasuetan eskaera **irailaren 11tik urriaren 14ra** aurkeztu beharko da, eta dirulaguntza, gehienez ere, ikastaroaren matrikularen % 40koa izango da, gehienezko 200 euroko kopuruan ikasleko eta ikasturteko.

Erakunde ofizialek antolatutako unibertsitate mailako uda ikastaroak egiteko:

Dirulaguntza hauen onuradunek ondorengo baldintzak bete behar dituzte: Andoainen erroldatuta egotea, 30 urte edo gutxiago izatea dirulaguntza eskatzen den momentuan, erakunde ofizial batek antolatutako unibertsitate mailako uda ikastaroa euskaraz egitea eta % 100eko asistentzia izatea

Eskatzaileek dirulaguntza eskaeraren inprimakia aurkeztu beharko dute **irailaren 11tik urriaren 14ra**, eta eskaerarekin batera matrikularen ordainketa agiria eta ikastaroa egin izanaren agiria, bertaratze ehuneko adieraziko duena. Dirulaguntza matrikularen kostuaren % 40koa izango da, eta eskatzaile guztiek egiaztatutakoa % 40 ordaintzeko iristen ez bada, ehuneko hainbesteko hori jaitziko da eskatzaile guztiei erantzun ahal izateraino.

Udalerriko kanpo eta barruko hizkuntza paisaia euskaraz jartzeko:

Dirulaguntza hauek eskatzeko honako baldintzak bete behar dira: enpresa edo merkataritza jardundegiak Andoainen egotea, gastua egiten den unetik dirulaguntza eskatzen den unera arte urtebeteko epea pasa ez izana, elementuak ongi idatzita izatea. Diruz lagunduko diren gastuen adibide batzuk: kanpoko errotuluak, erakusleihoaren kristalean jartzen diren errotuluak, eguzki-oihal eta olanen errotulazioa, barruan izaten diren idatzizko euskarri finkoak, seinalitrikarako euskarriak, bezeroentzat eskuragarri jartzen diren euskarriak, eta abar.

Eskatzaileek dirulaguntza eskaeraren inprimakia aurkeztu beharko dute **apirilaren 22tik ekainaren 16ra**, egindako gastuen fakturekin batera.

Euskarriak euskara hutsezkoak badira kostuaren % 60koa izango da, gehienezko 600 euro mugapean. Ele bitan badira, beti ere euskarazko testuari lehenetsia eman bazaio, kostuaren % 30, 300 euro mugapean.

Webguneak eta programa informatikoak euskaraz jartzeko:

Dirulaguntza hauek eskatzeko honako baldintzak bete behar dira: enpresa edo merkataritza jardundegiak Andoainen egotea, gastua egiten den unetik dirulaguntza eskatzen den unera arte urtebeteko epea pasa ez izana, edukiak oso-osorik euskaraz izatea, gutxienez, hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna.

Eskatzaileek dirulaguntza eskaeraren inprimakia aurkeztu beharko dute **apirilaren 22tik ekainaren 16ra**, egindako gastuen fakturekin batera.

Euskara hutsezko webguneak, edo eleanitza izanda, euskarazkoari, gutxienez beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, eta lehen orrian euskarazkoa lehenetsita: kostuaren % 50, 500 euroko mugapean eskatzaile bakoitzeko.

Eleanitza izanda, euskarazkoari, gutxienez beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, baina lehen orrian euskarazkoa lehenetsi gabe: kostuaren % 30, 250 euroko mugapean eskatzaile bakoitzeko.

Programa informatikoen kasuan, euskara hutsezkoa bada kostuaren % 50koa izango da, 300 euroko mugapean, eta eleanitza bada kostuaren % 30, 180 euroko mugapean eskatzaile bakoitzeko.

Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen duten erakundeentzako

Dirulaguntza hauen onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte: udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzea, euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzea eta eskabidea ekainaren 30 baino lehen aurkeztea.

2024 urterako 2.500 euroko dirulaguntza erabiliko da atal honetarako eta puntuazio sistemaren bidez lortutako puntuen baitako kopurua emango zaio eskatzaile bakoitzari.

Informazio gehiago: andoaindarraeuskaraz.eus/dirulaguntzak